

ERABAKIA, HAUTAKETA PROZESU HONETAKO EPAIMAHAIARENA: LAUGARREN SAILKAPEN TALDEA, JARDUERA ESPEZIFIKOETAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEEN KATEGORIAN, MANTENTZE LANAK ETA PRODUKZIORAKO ZERBITZUAK ESPEZIALITATEAN (ERREKTOREAREN 2018ko AZAROAREN 2ko ERABAKIAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKOAK SARTZEKO). HAUTATUTAKO PERTSONEN PROPOSAMEN OSAGARRIA EGITEKO DENA.

2021eko azaroaren 22ko Epaimahai honen Akordioaren bitartez, Jarduera espezifikoetako teknikari laguntzaileen kategorian, (Mantentze lanak eta Produkzioarako zerbitzuak espezialitatea) IV. taldeko lan kontratudun langile finko sartzeko hautaketa prozesuan aukeratutako pertsonen zerrendari buruzko proposamena gerenteari helarazi zitzaion, bai eta eskainitako lanpostuak esleitzeko proposamena ere.

10.1 oinarri orokorrean adierazitako dokumentazioa aurkezteko epea amaituta, egiaztatu da hautatutako pertsona bat behartutako erretiro-egoeran xedatu izan dela 2021eko azaroaren 12an.

Era berean, beste hautatutako bi izangaiei UPV/EHUko Osasun Zerbitzuak ez die eman interesdunak ez duela gaixotasunik edo akats fisikorik, eskatu duen lanpostuko zereginak betetzea eragozten dionik ziurtagiririk.

UPV/EHUko Gerentearen 2021eko abenduaren 17ko Erabakiaren bidez, epaimahai hau Epaimahaiari errekerimendua egin zaio hautatutako pertsonen proposamen osagarria egiteko, 9.2 oinarri orokorrak esandakoari jarraituz.

Azaldutakoagatik eta 10.3 oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorritik, bidezkoa da gaindituen zerrendako hurrengo hiru pertsonen aldeko proposamen osagarria egitea, eta izangai horiei hogeitun egun naturaleko epea ematea 9.1 oinarri orokorrean eskatutako dokumentazioa aurkezteko.

Beraz, aipatutako hautaketa prozesuko epaimahaia bildu da eta honako hau erabaki du, bat etorritik bederatzigarren eta hamargarren deialdiko oinarri orokorretan adierazitakoarekin:

LEHENENGOA.- Jarduera espezifikoetako teknikari laguntzaileen kategorian, (Mantentze lanak eta Produkzioarako zerbitzuak espezialitatea) IV. taldeko lan kontratudun langile finko sartzeko hautaketa prozesuan aukeratutako pertsonen zerrendari buruzko proposamen osagarria helaraztea gerenteari, bai eta eskainitako lanpostuak esleitzeko proposamena ere, erabaki honen eranskinean jasota dagoen moduan.

BIGARRENA.- Argitaratzea aukeratutako pertsonen zerrendari buruzko proposamen hori UPV/EHUko Lan Eskaintzen Atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp), non ikusi ahal izango den.

HIRUGARRENA.- Hogeitun egun naturaleko epea ematea, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasita, proposatutako pertsonen beren gaitasuna egiaztatzen duten eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztela frogatzen duten dokumentuak aurkez ditzan Pertsonaleko Gerenteordetzan (UPV/EHUko Errektoregoaren eraikina, Leioa).

LAUGARRENA.- Kontuan hartuta 7.4 oinarri orokorrak dioela epaimahaien erabakiak aurkaratu ahal izango direla Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako kasuetan eta moduan (39/2015 Legea,

urriaren), administrazio bideari amaiera ematen ez dion erabaki honen kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko gerenteari hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Errekurtsio hori aurkez daiteke UPV/EHUko erregistroetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aipatzen diren lekuetan (39/2015 Legea, urriaren lekoa, 16.4 art.), haren azken xedapenetako zazpigarrenean egiten den salbuespenarekin, erregistro elektronikoari buruzko xedapenak aplikatzen hasteko bi urteko epearen inguruan.

Libe de Aguirre de Arriaga
Epaimahaiko idazkaria